

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 4171

*AGINDUA, 2025eko irailaren 15ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez baita goi-mailako kirolari izateari utzi diola deklaratzeko duena.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen aurka ez doan guztian indarrean dagoena) 11. artikulua 1. apartatuko b) letran ezartzen duenez, goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile izaera galtzen da hura emateko xedapen arauemaile horretan ezarritako baldintzaren bat gerora desagertzen denean, besteak beste, euskal herritar izaera politikoa izaten ez jarraitzea.

Uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 11. artikulua 2. apartatua adierazten denez, kirolari, teknikari edo goi-mailako epaile izaera galtzeko, administrazio-espeditzea eta ebazpen arrazoi-tua behar dira. Espediente hori kontraesanean izapidetu behar da, eta interesdunari entzunaldia eman behar zaio ebazpen-proposamena egin aurretik. Espedientea Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuaren agindu bidez ebatzi behar da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta eta interesdunari jakinarazita.

Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordeak entzunaldi-izapidea eman dio Esther Briz Zamorano andreak, erroldatze-ziurtagiria edukitzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean benetan bizi dela egiazta dezan. Esther Briz Zamorano andreak informazioa eman eta Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordeari eman ahal izan dio bere ohiko bizilekua egiaztatu ahal izateko egokitze jo duen guztia.

Lortutako informazioan oinarrituta, eta, batez ere, Esther Briz Zamorano andreak berak aurkeztutakoan eta adierazitakoan oinarrituta, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordeak proposatu dio Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari kirolari horrek goi-mailako kirolari izateari utz diezaiola. Esther Briz Zamorano andreak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotearen ziurtagiria izateaz gain, aipatutako kirolariak ez du egiaztatu –modu erreal eta eraginkorrean– lurralde horretan bizi denik, administrazio-auzotasuna arautzen duen administrazio-legeriarekin bat etorritik.

Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi-mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, Esther Briz Zamorano andreak goi-mailako kirolari izateari utzi diola deklaratzeko.

Bigarrena.– Izaera galtzeak ondorioak izango ditu agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal

2025eko urriaren 6a, astelehena

Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 15a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.